

Aporofobiatik aporozidiora

Koldo Sagasti

Txirotasunak jota hil zen Koldo Arribillaga 55 urteko gasteiztarra iragan irailaren 8an. Medikutxostenaren arabera, aortabalbulako estenosiak geldiarazi zion bihotza, baina ez, pobreziak hil zuen. 2019an bankuak amarekin partekatzen zuen Alde Zaharreko etxebizitzatik kaleratu zuen. Ama egoitza batera bidali zuten gizarte zerbitzuek eta Arribillaga bere jabetzako lokal batean bizitzen hasi zen. Handik ere bota zuen Udaleko Hirigintza Zerbitzuak; lonja batek ez dituelako betetzen, nonbait, bertan bizitzeko gutxieneko baldintzak. Urtebete baino gehiago zerman bizitza salbatuko zion bihotzeko ebakuntzaren zain, baina Osakidetzak

uko egin zion operazioa egiteari; erakundearen arabera, gaixoak ez zuelako ebakuntzaren ondorengo arreta jasotzeko bizitoki egokirik. Halaxe salatu zuen gasteiztarrek maiatzean, hil baino lau hilabete lehenago, Argilan-ESK eta Etxebizitzarako Eskubidearen Aldeko Ekimenak antolatutako agerraldian. Agiri medikuek horrelakorik jasotzen ez badute ere, bankuaren, Udalaren eta Osakidetzaren artean erail zuten Arribillaga; batzuek egoera zaurgarrian bizi zen pertsona bat kale gorriara bultzatu zutelako; besteek bere txirotasuna zela medio hil ala biziko arreta medikua ukatu ziotelako.

Baina haren heriotza bazterkeria sistemiko baten adierazpenik lazgarriena

baino ez da, gizarte maila apaleneko pertsonak eta sistemarako produktiboak ez direnak zokoratzen dituen egitura sozial baten azken ondorioa. Eta gizarte antolakuntza baztertzaila horren lehenengo irakaspena eskolan bertan hasten da, bi abiadurako hezkuntza sisteman. Batetik, maila sozioekonomiko baxuenekoak, kanpotik etorritako langileen seme-alabak askotan, sare publikoan kontzentratuta. Bestetik, kanpoko munduan gertatzen denari ezaxola bizi diren pribilegiatuak, pribatu-itunpekoan. Bi sare, bi azpimundu, txikitatik ikas dezaten zein den norberaren tokia. Batzuk bihotzekoak eta besteak bankuak hiltzen dituela. •

Lezioak ematea itsusia izan daiteke

Xabier Izaga
Gonzalez

Kotxe bion prezioen arteko aldea handia da, baina praktikamente berdina dira», idatzi zuen Euxebiok. Irakasleak idazlana zuzendu eta horrela itzuli zion esaldi hori: «Auto bion arteko salneurrien arteko aldea handia da, baina berdintsuak dira».

Euxebiok oso ondo egiten zuen euskaraz, baina idazten eta «telebistan lez» hitz egiten ikasi nahi zuela zioen. Irakasleari entzun zion ez dela berdina egiten lagunekin, Administrazioarekin edo inguru akademikoarekin, hizkuntza guztietan hainbat erregistro daudela. «Erregistro? Horrek niri Poliziak egiten duena gogorarazten dit, zehazki etxeko atea ostikoka lurrera bota ostean!», esan

zidan Euxebiok hurrengo egunean. Garai hartan indarrean zegoen ateko ostikoaren legea esaten zitzaiona, Jose Luis Corcuera ministroak asmatua.

Azken urteetan bere alderdi ohiaren aurka esan dituenengatik nabarmendu da ministro sozialista ohia. Haren kezka Espainiaren batasuna da. Sozialista horri inoiz ez dio ardura izan bere alderdiak eskuinaren legeak onartu eta are bultzatu izana, besteak beste langileen egoera kaskartzen duten legeak, alegia.

Zenbait hedabidetan agertu da eguntan ere, gerra zikinaren erantzule gisa. Gerra guztiak dira zikinak, baina horren antolatzaileek etika lezioak eman nahi izatea gutxienik, etikatik estetikara

eginda, itsusia da. Oso itsusia da legez kanpoko jarduna eragozteko ardura duenak legez kanpoko jarduna antolatzeari bere inpunitatea baliatuta.

Kike Zurutuzak aspaldi kontatu zuena gogorarazi zuen ostegunean NAIZen: Ertzaintzak bazuela berari eta Azpeitiko HBko beste zinegotziari bidali zieten bonbaren berri. Eta ukatu egin zuen. Gasteizko Gobernuak orduan ez zuen hitz erdirik ere esan. Asteon hitz erdi bat jaulki zaio sailburu bati.

Gogora etorri zait zoru etikoaren goiburua bihurtu den esaldi bat: «Hain zaila da egin zutena gaizki egon zela esatea?». Tira, ez da aipu zehatza, baina praktikamente gauza bera esan nahi du. •